




BARANDIARAN AMARIKA, Asier (koord.)
Egile Nafarren Euskal Literaturaren Antologia.
Erdi Arotik Errezanizmentura eta Erromantizismoa.
1 Liburukia

Iruñea: Nafarroako Gobernua-Vianako Printzea, 2017
295 or. ; 21 cm
ISBN 0.0.: 978-84-235-3472-2
ISBN: 978-84-235-3473-9



BARANDIARAN AMARIKA, Asier (koord.)
Egile Nafarren Euskal Literaturaren Antologia.
Erdi Arotik Errezanizmentura eta Erromantizismoa.
2 Liburukia

Iruñea: Nafarroako Gobernua-Vianako Printzea, 2017
295 or. ; 21 cm
ISBN 0.0.: 978-84-235-3472-2
ISBN: 978-84-235-3473-9



BARANDIARAN AMARIKA, Asier (koord.)
Egile Nafarren Euskal Literaturaren Antologia.
1975tik-2000ra arte.
3 Liburukia

Iruñea: Nafarroako Gobernua-Vianako Printzea, 2019
387 or. : ir. ; 21 cm
ISBN 0.0.: 978-84-235-3472-2
ISBN: 978-84-235-3539-2



BARANDIARAN AMARIKA, Asier (koord.)
Egile Nafarren Euskal Literaturaren Antologia.
2000tik-2020ra arte.
4 Liburukia

Iruñea: Nafarroako Gobernua-Vianako Printzea, 2021
630 or. : ir. ; 21 cm
ISBN 0.0.: 978-84-235-3472-2
ISBN: 978-84-235-3602-3

Ondo ezaguna da Antxo VI.a Nafarroakoak, *Jakitunak*, 1167. urtean sinatutako Aralarko San Migel funtsako dokumentua, aro garaikidean Iruñeako Katedraleko Artxibotik argitara ekarria, nafarren berezko hizkuntza euskara dela azpimarratzen duena. Aralarko San Migelekoa ere da ehun-bat urte lehenagoko (1074) dokumentu ospetsua, Antxo IV.a Gartzeitzek, *No-bleak*, sinatua, euskara, latina eta erromantzea idazki berean darabilena. Egun, garai hartatik ia mila urtera, euskarak nafarren hizkuntza berezia izaten darrai –hots, berez emekoa, bertakoa–, eta, nafar errege edo jauregirik izan ez arren, euskararen estatus-izaera baldintzatzen duten legeak tarteko, idatzizko literatura uzta oparoa ematen du. EHUko irakasle eta LAIDA (Literatura eta Identitatea) taldeko ikerlari Asier Barandiaranek koordinatutako lanak, Vianako Printzea erakundeak eskatuta eta sustatuta, hori berori erakusten du.

Egile nafarren euskal literaturaren antologian, nafarrek euskaraz idatzitako elertiarren egile eta testu jakinak bildu ditu Barandiaranek gidatutako taldeak, garaika antolatuta eta sarrera-testuingurua gehituta –biografia eta edizio argibideak tartean–. Ekimena hainbat urteko ondorioa da, eta lau liburukitan tolestu da. Lehenak 1545. urteko Etxepareren lanetik XIX. mende amaierarako 11 idazleren idazkiak biltzen ditu; bigarrenak, XX. mende luzeko 15 idazlerenak; hirugarrenak, XX. mendeko azken hogeita bost urtetako 19 idazlerenak; eta laugarrenak, XXI. mendeko 30 eta haren idazlerenak. Lanak, hortaz, nafarrek euskaraz eginitako testu hautatuen bildumarik osatuena eskaintzen du, eta irakaskuntzan zein ikerketan ari denari laguntza handia egingo dio, nafar plaza eta kaleetako euskal literatura ikusgarri egiten duelako.

Antologiaren helburua, beraz, ez da entziklopedikoa izatea –horretarako Otaegi gidatzen ari den *Euskal literaturaren antologia* dugu, nafarrak gainerako euskaldunekin batera bilduak ematen dituen–, egile nafarren euskal ekoizpena agerian uztea baizik. Izan ere, Barandiaranentzat, *Gatazka Nafarroako euskal literaturaren* lanean adierazi zuen legez, egile nafarrak, euskaraz aritzean, literatura sistemaren periferian kokatzen dira, bai euskal literatura sisteman, bai erdal literatura sisteman. Badago, hortaz, euskaraz ez den nafar literatura, edota nafarra ez den euskal literatura. Baita erdigunerik eta azpisisistemarik ere. Horra hor *status linguae nauarorum*, literaturaren askatasunean ere han-hemendik estututa. Izan ere, 2016-2017 urteetan, Nafarroako berezko hizkuntzak bi direla, eta bakoitzak bere bidea daukala, aitortzen zuen bilduma atera zuen Pamiela argitaletxeak: gaztelera idatzitako nafarren testuak lehenengo (Campion), euskaraz idatzitakoak ondoren (ZZ.EE.). Nafar Idazleen Elkarteak ere egoeraren berri ematen du haren webgunean: nafar idazleak egungo Hegoaldeko erkidegokoak dira, eta haien hizkuntzak bi dira; legez mugatuta horietako bat.

Nafarroako Gobernuak, Vianako Printzea erakundearen bidez, bultzatutako ekimena, ondorioz, hutsunea betetzera dator; aurretik lagundutako ekimenek egindako hutsegite ugariak osatzera, hobe esanda, egile nafarren literaturaren antologietan (González; Mata 2003a; Yerro) ez baitzen euskarazko testurik jaso. Izan ere, erakundeak askotan sustatu du Nafarroako literaturaren azterketa (Elizalde, Fernández, Fernández/Mata, González, Mata 2012), euskarazko ekarpena aipatu gabe utziz edo bazterreko ataletara mugatuz. Horri guztiari, bestalde, gaztelera nafar literatura aztertu duten beste zenbait lan gehitu behar zaizkio (Corrella, Iriarte, Iribarren, Maraña, Martín, Mata 2003b, 2007), Nafarroa literatura espainolaren sistemaren periferia eta tira-biratan aztertzen dutena; Nafarroa berez nafarra, euskalduna, dela ezin ulertu edo ilunduz, nahiz eta erdarazko lan ederrak egin dituen, *Versi Domna Leodegundia Reginatik* hasiz.

Baina Nafarroako euskal literaturak ere azterketa eta antologia lanak izan ditu. Hara, Barandiaranen lan honek hainbat aitzindari dauzka (Ingaray, Larrea, Larrea/Diez de Ultzurrun), gehienak Pamiela argitaletxearen eskutik, eta horietan Bidador (2004, 2016a-b; ZZ.EE. 2016) nabarmendu egin beharra dago, antologia berriaren oinarrietan dagoelako. Baina Barandiaranen lanak hainbat urrats gehiago eman ditu, eta urte askorako ezinbesteko erreferentzia izango da: lantaldeak eskainitako lana argia eta erabilerraza delako, eta lau liburuki urte gutxitan batera eman dituelako.

Barandiaranen lehen liburukian adierazten den legez, “euskal literatura egile nafarrek nola jorratzen duten erreparatzea, zein ikuspegietatik, zer nolako estrategia eta estilo auke-

raketekin... zilegi delakoan gaude, agian ezaugarri bereziak aurki ditzakegulako, eta hori azterteak ekarpen bat egin diezaioke, hain zuzen ere, euskal literatura osoari” (I: 11). Horretarako, banaka-banaka aurkitzea eta kontsultatzea errazak ez diren autoreak (Etienne Salaberrri, II. liburukian, esaterako) esku-eskura jarri ditu, eta irakurleak gida bikaina izango du, ondoren, egileengana zuzenean joateko. Baina hainbat mendetan idatzitakoaren uzta ederra gertu uztea gutxi balitz, antologiak ekarpena are hobea egiten du laugarren liburukiaren bidez: XXI mendeko euskal idazle nafarrak eta haien literatura lanak. Urregoria hor izango du irakurle, irakasle zein ikerlariak, eta lehen liburukian esandako hau gainean jarri behar zaiolakoan nago: “Euskaraz idatzi eta idazten duten egile nafarren literaturaren nondik norakoak hobeki ezagutu, ulertu eta maitatzeko” (I: 26).

Izan ere, egun edota oraintsuko lanek emango diote nafar aho-belarri eta esku-begei Euskal Herri egiteko elikagairik, Even-Zoharrek azkenaldian berriz ere nabarmendu duenez, literatura herrigintzarako ezinbesteko gaia baita. Jon Kortazarrek, laugarren liburukiari eginiko aitzinsolasean, orain arte iruzkin honetan adierazitakoa argi azaltzen du, israeldarrari helduz: Literaturak naziogintza eta boterearen erakusketan zerikusi handia dauka, eta Barandiaranen antologiak Nafarroako euskal kulturaren ikuspegia ematen du. Ezin eguneratuagoa eta aberatsa. Nafarroan gobernu euskaltzalea behar izan da “euskaltzaletasuna bultzatzeko eta Nafarroako euskal egileen lana erakusteko” (IV: 13), eta lan honek euskal uzta ageri-agerian uzten du. Kortazarrek argi eta garbi dio:

Horrelako lan batek gizartearen barnean errepresentazio espazioa sortu ohi du. Batez ere nazio edo toki politiko baten irudimena sortzea da bere helburua, eta alde horretatik antologia honek bere helburua bete du. Nafarroan euskaraz egiten den literaturarentzako espresio moldea lortu nahi izan du, bai Nafarroan bertan eta bai euskaraz literatura egiten den beste esparruetan. Barnera begiratu du, baina kanporako mezua ere bidali du, Nafarroan den euskal literaturari ohi ez duen bidea eskainiz (IV: 16).

Saiakera, antzerkia, poesia, bertso-papera, hagiografia, eleberria... genero ugari landu dituzte nafar idazleek, gizon eta emakume, zahar eta gazte. Era guztietako adibideak erakusten ditu antologiak, idazlearen biografia edo berri laburra, haren literaturaren nondik norakoak eta idatzitakoaren ale edota pasarte ederrak emanez. Gainera, Barandiaranek bere sasoiari Torrealdaik hartutako mugen gainetik egin du: Behe Nafarroa eta bertsolaritza barne hartu dira, eta jaiotzez nafar izan ez baina lurraldean errotu zein jaiotzez nafar izan eta osteko lurraldera joandakoak ere bai –hartara, ederra da II. liburukian Marie-Jeanne Minaberry eta Xalbador aurkitzea–. Geografiaren irakurketan hizkuntzak eta herriak agindu dute, hortaz. Hori dela eta, geroan Europako euskal lurralde oro Nafarroatzat hartzeko bideari keinua ikusi (nahi) diot lau liburukiak aurrez aurre izatean, eta (idazle) euskaldun orok bere buruari nafar irizteko (ikus Azurmendi 76; 83-85).

Gainera, Etxepareekin hasi eta Xamarrekin amaitu da antologia (egia esanda, zenbait bertsolarirekin): euskara plazara jalgitzeko erabateko hitza eman dutenetako bi. Baina antologiak ez digu horrelako talde ezaugarriak erakutsiko. Idazleak euren horretan ageri dira, haien arteko joera edo batasun argirik gabe. Horregatik, antologiak egile nafarren euskal literaturaren historiari atea irekita uzten dio. Barandiaranek liburukieki egindako sarreretan, liburukiek barne hartutako garaian ezaugarri sozial, politiko eta kulturalak eman ditu, eta idazleak testuinguru horrekin lotzeko lanik handiena irakurlearen esku dago; baita antologiatik at utzitako idazleak lotzearena ere. Gainera, literatura testuak idazleak erabilitako aldaeran ekarri dira. Irizpide bikaina, testuak euren horretan hartu behar direlako hein handiengan.

Liburukien lodierak argi uzten du uzta ugariagoa dela XX. mendearen azken hamarkadetatik. Ondorioz, bada idazlerik azken liburuki bietan ageri dena (Aingeru Epaltza, Juanjo Olasagarre eta Patziku Perurena, hain zuzen). Edota bietako batean bai, baina bestean ez, liburukiek hartutako garaian idatzitakoaren arabera. Marko horretan, eta iruzkin honetan nabarmendutako lerroaren baitan, bada antologian ikusi nahi nukeen eta ageri ez den lanik, nahiz eta egileak III. liburukian erakusketa ona izan: Patxi Zabaletaren azken poesia-saiakera lana, autoedizioa, eta epika helburu duena, historiatik abiatuta: *Nafarroa euskal epikan*.

Olerkizketa. Halakorik euskaraz, eta egungo Nafarroan, lehenbizikoa dugu –I. liburukiko Erromantizismoko balada eta programekin alderatzekoa–.

1.600 orrialdetik gorako antologia, beraz, lan emankorra izango da geroko urteetan, baina ez da hor bukatuko. Nafar euskal literatura sistemak, erdigune zein periferia izaerarekin, lan eder gehiago emango ditu, eta antologia hau handitzeko edo berririk egiteko aukerarik egongo da. Bitartean, aukeratu eta erakutsitako lanak irakurri egin beharko dira, ezagutera gehiago eman, eta ikerlariak haien ezaugarriak eta talde joerak azter ditzake. Nafarrek zer gai eta nola landu duten, zer genero eta nola hobetsi duten, haien arteko erreferentzia edota ikur komunik daukaten... luzeago eta zehatzago azaldu beharko da lau liburukiak mahai gainean hartuta. Antologiak, beraz, helbururik handiena bete du: euskal idazle nafarrak ezagutzeko, irakurtzeko eta aztertzeko bidea zabaltzeko.

Bibliografia

- AZURMENDI, J. (2017). *Hizkuntza, nazioa, estatua*. Donostia: Elkar.
- BARANDIARAN, A. (2011). *Gatazka Nafarroako euskal literaturan*. Bilbo: EHU.
- BIDADOR, J. (2004). *Materiales para una historia de la literatura vasca en Navarra*. Iruñea: Pamiela.
- . (2016a). *Klasiko bitxi, arront klasiko*. A. Galarraga (arg.). Iruñea: Pamiela.
- . (2016b). *Klasiko bitxi, arront klasiko. Material osagarria*. A. Galarraga (arg.). Iruñea: Pamiela: <https://pamiela.com/deskarga/bidador.pdf>
- CAMPION, M. (koord.) (2016). *24 relatos navarros*. Iruñea: Pamiela.
- CORELLA, J.M. (1973). *Historia de la literatura navarra. Ensayo para una obra literaria del viejo Reino*. Iruñea: Pregón.
- ELIZALDE, I. (1980). *Literatura navarra. Antología de textos literarios*. Iruñea: Nafarroako Al-
dunia.
- EVEN-ZOHAR, I. (1994). La función de la literatura en la creación de las naciones de Europa. In D. Villanueva (arg.), *Avances en Teoría de la literatura: Estética de la Recepción, Pragmática, Teoría Empírica y Teoría de los Polisistemas (357-377)*. Santiago de Compostela: Universidade de Santiago de Compostela.
- FERNÁNDEZ, Á.R. (2003). *Historia literaria de Navarra. El siglo XX: poesía y teatro*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- FERNÁNDEZ, Á.R.; MATA, C. (2006). *Historia literaria de Navarra. Siglos XVIII y XIX*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- GONZÁLEZ, F. (1989). *Introducción a la historia literaria de Navarra*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- IRIARTE, I. (2000). *Tramas de identidad. Literatura y regionalismo en Navarra (1870-1960)*. Madrid: Biblioteca Nueva.
- IRIBARREN, M. (1970). *Escritores navarros de ayer y de hoy*. Iruñea: Gómez.
- IRIGARAY, A. (1958). *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca / XX mendeko Nafarroako euskal idazlariak*. Iruñea: Vianako Printzea.
- LARREA, J.M. (1995). *Nafarroako euskal idazleak 2*. Iruñea: Pamiela.
- LARREA, J.M.; DÍEZ DE ULZURRUN, P. (1987). *Nafarroako euskal idazleak 1*. Iruñea: Pamiela.

- MARAÑA, F. (1996). Pamplona y otros relatos. Del paisaje literario de un territorio del norte (1900-1994). In E. Ayerbe (arg.), *Pamplona-Iruña. Vida, paisajes, símbolos* (244-259). Donostia: Sendoa.
- MARTÍN, J.L. (1989). *Cincuenta años de novela española (1936-1986): Escritores navarros*. Bartzelona: PPU.
- MATA, C. (2003a). *Navarra. Literatura*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- . (arg.) (2003b). *Poetas navarros del Siglo de Oro*. Iruñea: Fundación Diario de Navarra.
- . (2007). La aportación de Navarra a la literatura española. In J.I del Burgo (koord.), *Vascos y navarros en la historia de España (337-374)*. Iruñea: Laocoonte.
- . (2012). *Leer y escribir. Humanismo y literatura en la Navarra del siglo XVI*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- OTAEGI, K. (koord.) (2015). *Euskal Literaturaren Antologia. Testuak eta argibideak 1: Erdi Arotik Errenazimentura*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- . (2020). *Euskal Literaturaren Antologia. Testuak eta argibideak 2: Errenazimentutik Ilustraziora: XVII eta XVIII mendeak*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- TORREALDAI, J.M. (1978). Nafarroako euskal idazleak. *Jakin*, 6, 24-31 [Gazt. itz. Los escritores vascos de Navarra. In ZZ.EE., *Navarra desde Navarra* (43-56). Arantzazu: Jakin].
- YERRO, T. (koord.) (1990-1991). *Escritores navarros actuales: antología*. Bi liburuki. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- ZABALETA, P. (2020). *Nafarroa euskal epikan. Olerkizketa*. Iruñea.
- ZZ.EE. (2016). *Principe de Viana*, 264.
- ZZ.EE. (2017). *39 idazle nafar*. Iruñea: Pamiela.

Jon Mentxakatorre Odriozola